

# Erljioa Bizkaiko Foruetan (II)

*El hecho religioso ha estado presente en Constituciones de muchos Estados, también en casi todas las Constituciones españolas (1808-1876), prestándole reconocimiento oficial a la Iglesia Católica o atendiendo, de algún modo, a la condición sociológica de la misma. En su forma medieval y moderna, los Fueros de Bizkaia observaron, a su modo, una política atenta en este apartado.*

Aurrekoan esandakoetatik gatozen orain Foru-erregimenak Bizkaian Elizarekin izandako harremanetara. Alor ezberdinetan egon zen halakorik, eta, hasteko, Foru-Legeek babestu egin zituzten beharrekoak edo komenigarriak omen ziren harremanak.

## Eliz ekonomiaz

Lehen harreman-gune nagusi bat ondasunena izan zen, ekonomiarena. Ez gaitu horrek harritu behar, bi aldeetatik baitzegoen hor zer zaindu eta zertan elkarri lagundu edo enbarazu egin. Bizkaiko herritar laikoek eliz ondasun asko zuten beren eskuetan, ondasun horien eta bestelako eliz ondasunen erabileran, eta era bertsuan Elizakoak ez zirenak elizaratzean guztiez baliatzeko bi aldeek zuten zeresanik.

Foru Zaharra (1452) saiatu zen Elizari babes ekonomikoa ematen, Elizarentzat ere *hamarrena*k segurtatuz, adibidez. Bestelakoan, nabaria da eliz agintariekiko mesfidantza politikoa Bizkaiko bi Foru nagusietan, eskubide sozialak eta gobernu herritar laikoa eliz eskuetatik aske nahi zirelako.

Eliz ondasun eta eskubideen gain herritarren Zaingo edo Patronatuek (jaunek edo udalek, adibidez) eskumen handia izan zuten Bizkaian, betidanik XIX. mende arte. Foru Berrriak zera gogoratzen du: "Por quanto en Vizcaya hay Monasterios de Patronazgos [elizak

eta parrokiak barne] que de antiguo acá tuvieron y poseyeron los vizcainos ..] consintiendo y aprobándolo todos los Santos Padres de Roma y los Reyes..." arrazoi horregatik eskubide horien defentsa suharki egiten zuten Legeek.

Patronatuarenak ez zuen esan nahi ondasunen jabetza eta gobernu bakarrik; parrokia eta elizetako erretore, bikario, kapilau eta benefiziodunak aukeratzeko eskumena ere bazuten eliz-patroiek. Pertsonalaren nondik norakoak beren eskuetan zituzten, beraz.

Elizak mende haietan agintea berrantolatzeko zeraman bilakabidean ez zen hori batere onargarria, eta Bizkaian suertatu zen hortik hamaika auzi eta liskar, arrazoi pastoral eta bestelakoengatik. Esate baterako, ezkurtuan ihes egin behar izan zuen Jaureritik Aznar Díaz Gotzainak (1238-1263), beraren erabakien aurka bizkaitarrek armaz eraso nahi izan ziotelako.

Pertsonala hautatu eta zaintzearen hau ez zen soilik elizgizonetik arazoa, emakumea ere lanean ari baitzen herrian eta Elizan. Jaurerria oro har eta Udalak ere arduraturik egon ohi ziren, herrietako laguntza sozialak nondik bideratuko zituzten: haurrak eskolaratzea ez zen samurra, kristau ikasbidea zen horretarako egokiera ona, eta berdintsu, zahar eta gaixoak ezin ziren zokoan laga, beraz



18  
zaintzaile arduratuak behar ziren. Horretarako, hain zuzen, *serora* eta *serorategi*ena izan zen sarritan irtenbide eroso eta eskuragarriena. Herrien interes horiek ez ziren beti bat etorri Elizaren erabakiekin, Trento ondoren batez ere (1556-1620). Inoiz Jaurerriak *serora-mojena* arazoa Erromaraino eraman behar izan zuen, XVII. mendean.

### Elizgizonekin kontuz

Hasteko, elizgizonen mugatu egiten zitzairen arrunki Epaitegiaren prokuradore izatea Eliza, kleriko, guraso edo behartsuren baten ordezkari gisara ez bazen, elizgizonak beren zereginetarako nahi ziren eta. Bestalde, herriko eta herritar zibilen auzi zibil eta kriminalak ezin ziren Elizatik eraman, Epaitegi sekularretan baizik. Horrelako auzietan Gotzainak ez zezakeen eskumikurik erabili inoren aurka. Horren arabera, azpimarratzekoa da arau zibil hori Gotzainari, eliz agintari bati, ezartzen zitzaiola. Oro har, esan dezagun eliz agintarien esku-hartzeetatik Justiziaren beso sekularren eskumena ongi zaindu nahi zuela Foruak.

Jaurerriak Calahorrako Gotzainarekin zituena harremanak ez ziren izan guztien gustura bideratzen errazak. Alde batetik, Bizkaian zeuden elizen atzean interes eliztarrak ez ezik herritarrak ere bazeudelako, eta bestalde, betidanako eskubide politiko-erlijioso aitortuen gainean eraikitako sistema zelako, Foruena.

Jaurerriko politika erlijiosoa mesfidati ageri zen Calahorrako bere Gotzainarekin, eta trabak jarri ohi zituen bisitaldi kanonikoak egiteko, jakinik eliz zuzenbide orokorarekin arriskutan ere bazeudela parrokia eta elizguneen gaineko bizkaitarren patronatu laikoak. Egoera samur-

tzeko, XVI. mendean politika malguagoa bideratu nahi izan zuten Jaurerriak eta Gotzainek (1519, 1539).

Aginte-harremanak gorabehera, gizarteko bizitza kristauak gehiagorik ere eskatzen zuen, noski. Erlijiotasun eliztarrarekin loturik ageri diren bi arlo nagusiago aipatuko ditut: familia eta heriotza-ondokoak. Ezkontza kristauaren inguruko arauak ugari dira Foruetan: senar-emazteen arteko harreman pertsonalez edo bien arteko ondasunen banaketaz dihardute bereziki. Heriotzaren inguruko arauak garaiko pentsamoldeen ispilu jakingarria dira, eta haien oihartzuna gureganaino iritsi da.

Berriz ere gizartera gatozela, esan dezadan sendiarekin zerikusia duen arau anitz dagoela Foruetan, gizarteak onartzen zuen familia kristaua zaintzeko hainbat lege esan nahi dut. Ezkontideen arteko zintzotasun sexuala kontuz zaindu nahi izan zuen Foruak, legez kanpoko seme-alaben eskubideak ahaztu gabe. Ezkontideen arteko banaketa aintzakotzat hartzen zen, berorren ondorio juridiko-ekonomikoak zaintzeko.

Gure inguruko kultura kristauetan bezala, Erdi Arotik aurrera heriotzaren ondokoek garrantzirik handiena eman ohi zitzairen, eta Foruetan ere hala da, bizirik geratzen zirenentzako harremanak argi erata utzi behar ziren (seme-alabentzako ondasun- eta eskubide-banaketak, adibidez) eta hildakoari sepultura eta elizkizunak ziurtaturik (dohaintzak, mezak eta abar). Usadioa: zenbat eta ondare handiagoa, orduan eta eliz dohaintza gehiago izan ohi zen sarrienik ohitura, hildakoak azken Bake osoa izan zezan.

**Joseba Intxausti**